



3

Testua zuzendu




Testua ez da soilik azken fasean zuzendu behar. Idazteko prozesu osoan ibiltzen gara zuzentzen.

Postaren testua zuzentzeko modurik eraginkorrena baliatu genuen: testua taldekideei begiratzeko eskatzea, idazkeran adituak baitira.




Testuetan, zenbait zuzenketa mota egin daitezke.



Batzuek edukiarekin zerikusia dute.

Esaterako, ideia bat ez dago modu egokian azalduta, ideia batzuen arteko lotura ez da argia edo edukia beste eduki batez aberastu daiteke.




Beste batzuk lotuago daude
hizkuntzaren bestelako kontuekin.


Adibidez, gramatika edo lexiko aldetik zuzendu beharrekoak dira, estilo desegokia dute edo gaztelaniazko egituren kalkotzat har daitezke.

Batzuetan zaila izaten da jakitea hobetzeko kontu bat zein esparruri dagokion: estiloari, edukiari ...

Testua hobetzeko ahalegin guztiak egitea da garrantzitsuena, eta, ahalik eta komunikatiboena izan dadin, aintzat hartu behar ditugun faktore guztiak errebisatzea.




Zuzenketa fasean, zenbait
aldaketa egin genituen postaren
jatorrizko bertsioan. Zazpi adibide
ekarri ditugu aurkezpen honetara.



1.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:

Askok esanahi bereko hitz bi elkarren ondoan
jartzeko ohitura daukate.




Esaldi horretan, estiloari lotutako
aldaketa batzuk egin genituen.

Hartzailearekiko hurbiltasuna bilatzeaz gain,
aditzaren alde egin genuen:

Askotan, esanahi bereko hitz bi elkarren ondoan
jartzen ditugu.


Idaztean, faktore asko hartu
behar ditugu kontuan.
Horietako bati begira
gaudela, oharkabea, erraz
asko egin dezakegu
oinarrizko akatsen bat.



2.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:

Ez dago ezarrita noiz egin behar diren errondak;
menpeko langilearen lan-kargaren arabera egingo **da**.




Gramatikari lotutako akats bat zuzendu
genuen:

Ez dago ezarrita noiz egin behar diren errondak;
menpeko langilearen lan-kargaren arabera egingo **dira**.

3.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:


Nork bere bizitza kudeatzea errespetatzeak (bioetikako autonomia-printzipioa) esan nahi du gai den pertsona orok, hertsapenik gabe eta behar bezala informatuta **dagoela**, eskubidea duela tratamendu jakin bat onartzen duen ala ez erabakitzeko, nahiz eta batzuetan medikuen iritziekin bat ez etorri.



Honela zuzendu genuen:

Nork bere bizitza kudeatzea errespetatzeak (bioetikako autonomia-printzipioa) esan nahi du gai den pertsona orok, hertsapenik gabe eta behar bezala informatuta **egonda**, eskubidea duela tratamendu jakin bat onartzen duen ala ez erabakitzeko, nahiz eta batzuetan medikuen iritziekin bat ez etorri.


Testua modu askotan hobetu
daiteke: laburtuz, osatuz,
aberastuz edo berridatziz,
esaterako.



4.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:

Idaztean, askotan errepikapenak erabiltzen ditugu mezua argitzen dutelakoan. Aipatutako hitz edo ideia bat aldatzeko edo zuzentzeko, beharrezkoak izaten dira ...




Testuaren estiloa eta edukiaren ulermena hobetzeko asmoz, honekin ordezkatu genuen:

Idaztean, beharrezkoa da zenbaitetan elementuak errepikatzea mezua argitzeko helburuarekin ...

5.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:


Loturak tresna bikainak dira diskurtsoa antolatzeko, baina ez dira egokiak betegarri huts erabiltzen ditugunean.



Esaldia honela berriatzi genuen:

Loturak tresna bikainak dira diskurtsoa antolatzeko, baina ez ditugu betegarri huts moduan erabili behar.

Testuetan, gaizki-ulertuak
ekiditea ezinbestekoa zaigu.
Zalantzarik izanez gero, hobe
dugu testua aldatzea.



6.

Jatorrizko bertsioan honela eskaintzen genituen adibide hauek:



Landa-lana egiteko, enpresa esleipendunek abiapuntuko direktorio bat egingo dute. Direktorioan, establezimenduekin harremanak izateko behar diren oinarritzko datuekin loturiko informazio-base bat egongo da, eta, aldi berean, prozesuetan egoten diren argibideak egunean izateko balioko du.



Landa-lana egiteko, enpresa esleipendunek abiapuntuko direktorio bat sortuko dute. Bertan, informazio-base bat egongo da establezimenduekin harremanetan jartzeko behar diren oinarritzko datuak kontsultatzeko eta prozesuen argibideak eguneratzeko.

Testu hauen aurrean, zalantza bat sortu zitzaigun: Gauza bera adierazten dugu berridazketan? Ematen du argibideen eguneraketa direktorioan aurkitzen dela lehenengo adibidean, eta datu-basean, berridatzitako adibidearen arabera.

Gaizki-ulertuak saihesteko, lehenengo adibidea aldatu genuen:




Landa-lana egiteko, esleitutako enpresek abiapuntuko direktorio bat egingo dute. Direktorioan, establezimenduekin harremanak izateko behar diren oinarrizko datuekin loturiko informazio-base bat egongo da, eta, aldi berean, prozesuetan egoten diren argibideak egunean izateko baliokoduko **base horrek**.




Landa-lana egiteko, enpresa esleipendunek abiapuntuko direktorio bat sortuko dute. Bertan, informazio-base bat egongo da establezimenduekin harremanetan jartzeko behar diren oinarrizko datuak kontsultatzeko eta prozesuen argibideak eguneratzeko.

Errepikapenak nola kendu daitezkeen erakusteko adibide okerra zen lehenengo hori; beraz, ez genuen esaldiaren estiloa zaindu behar; bai, ordea, esanahia gorde.



Diseinu-kontuak ere errebisatu behar dira testuetan. Izan ere, pentsatu baino gehiago eragiten dute komunikagarritasunean.




Adibidez:

- Letra lodiak elementu garrantzitsuenak identifikatzen laguntzen digu.
- Letra-motak irakurketa erraztu ala oztopatu dezake.
- Zerrendek irakurketa errazten dute.
- Pantailan testua luzatzeak irakurleak testua irakurtzeari uztea ekar dezake.

7.

Jatorrizko bertsioan honela agertzen zen:

- Ia konturatu gabe, batzuetan beharrezkoa ez den edukia gehitzen diogu testuari. Eduki hori kendu daiteke, informazio galerarik eragin gabe.



Testuaren aurreko ataletan bulletak jarrita zeudenez, errepikapen mota hau deskribatzean ere bulleta jarri genuen. Horrela, irakurleak pentsa zezakeen zerrenda bateko itema zela, eta, beraz, jarraian puntu gehiago agertuko zirela. Horregatik, kendu egin genuen bullet hori.



Testua zuzendu

Gramatika

Estiloa

Testugintza

Diseinua

Zuzenketaren
helburua testua

hobetzea da.

Zeregin horretan,
den-dena aintzat
hartzeak lagunduko
digu, xehetasun
ñimiñoak zein kontu
garrantzitsuagoak.